

Uretara!

Bueno, lehenik eta behin, zer behar dugu bodyboarda zer den azaltzeko? Taula (ohola). Honakoa, ikusten duzuen bezala, bodyboardeko taula (ohol) bat da: nik erabiltzen dudana. Ikusten duzuen bezala, itxura honakoa du: aurreko partea hau da, eta atzeko partea, aldiz, honakoa. Ikusten... Ez dakit ikusiko duzuen edo ez, baina nik oso ongi nabaritzen dut: hemengo partea (goiko partea) eta beheko partea ez dira berdinak. Beheko partea lisoagoa da. Zertarako? Ba, olatuetan hobeto deslitzatzeko (irristatzeko), bai? Bueno, honez gain, zer da behar duguna bodyboarda egiteko? Aletak. Hemen dauzkat nireak. Aleta guztiak ez dira mota berekoak. Nik dauzkadanak holakoak dira. Ikusten duzuen bezala, isats itxura bat egiten du, bai? Eta zer egingo dugu aleta hauekin? Ba, zertarako dira? Oinetan jartzeko. Nola jarriko ditugu aletak? Ikusten duzuen bezala, hemen bi zulo dituzte. Eta zertarako dira zulo hauek? Ba, hondarretan gaudenean, eta hondarra sartzen bazaigu edo harrixoren bat sartzen bazaigu, ba, uretan gauden bitartean, harritxo horiek hemendik eskapu egiteko. Beraz, nola jarriko ditugu aletak? Itxura hau dutenez, itxura hau mantenduko dugu. Horretarako: hau ezkerreko hankan (punta zorrotza kanpoalderantz), bai? Eta zuloak, beheara. Zertarako? Ba, harritxoek eta hondarrak alde egiteko. Orduan, zulotik jarriko ditugu aletak, estu gelditu arte. Orduan, zer pasatzen da? Hasiera batean, aletak goma gogorrekoak direnez (goma gogor bat da, orduan, material honek mina egin dezake hanketan, eta zauriak egin ahal dizkigu zauriak egin...). Orduan, zer erabiltzen dugu guk? Eskarpinak. Eskarpinak deitzen dira, baina galtzerdi batzuen antzekoak dira, eta... orain erakutsiko dizuet. Eskarpinak, bodyboardekoak, horrelako zerbait dira. Hauek udarako eskarpinak dira. Zergatik? Ba, zuloa dutelako, eta hemendik ura sartu daitekeelako. Orduan, eskarpinak nola jartzen dira? Ba, galtzerdi bat izango balitz bezala: zulotik sartu, eta atzera. Honakoa da duen itxura. Orduan, zauriak, e... zaurietatik babesteko jarri ohi dugu eskarpina edo galtzerdi bat (berdina da), eta gero, gainetik, aleta. Bai? Ikusten duzue? Ongi. Zer pasatzen da? Olatuak handiak direnean, arriskua dagoela aletak eskapu egiteko. Orduan, zer erabiltzen dugu? *Inbentoa* deitzen diren sokatxoak. Hauek dira aleten *inbentoa*. Bai? Begira, da soka bat, belkro bat, eta listo. Zer egingo dugu? Honakoa da aleta... soka aletan ipini, eta belkroa txorkatilean (orkatilan). Eta, horrela, aletak ez digu ihes egingo.